


**H** LH3

2018/19



# Zuzenketarako Koaderno

*Izen-deiturak*

---

*Ikastetxea*

---

*Taldea*

---

*Herria*

---

*Data*

---

***Irakurmena***

***LHko 3. maila***

## **1. zatia**



**Probaren lehen zati hau  
egiteko 45 minutu dituzu.**

# Jarraibideak

Proba honetan testu bat irakurriko duzu eta irakurri duzunari buruzko galdera batzuei erantzungo diezu.

Galderak mota batekoak baino gehiagokoak dira. Galderetako batzuek lau erantzun dituzte, aukeran, eta haietan zuzena dena aukeratu eta haren ondoan dagoen letra biribil batez inguratu behar duzu. Adibidez:

**Ondoko 4 urtarotatik, zein da hotzena?**

- A. Udaberria.
- B. Negua.
- C. Uda.
- D. Udazkena.

Erantzuna aldatzea erabakitzen baduzu, ezabatu **X** batekin lehen erantzuna eta erantzun zuzena biribil batez ingura ezazu, ondoko adibide honetan egin den bezala:

**Ondoko 4 urtarotatik, zein da hotzena?**

- A. Udaberria.
- B. Negua.
- C. Uda.
- D. Udazkena.

Beste galdera batzuetan, aldiz, eskatuko dizute (E) egia edo (G) gezurra erantzutea edo erantzuna idaztea puntuak dituen gunean:

**Zein da Iruñeko tokirik ezagunena?**

.....

Galdera batzuk errazak dira eta beste batzuk zailagoak. Galderaren bat ulertzen ez baduzu, besteei erantzuten segitu ahal duzu, eta geroago, saiatu erantzun gabe utzitakoa egiten.

# MANDOAREKIN MENDIAN GORA



Balentin Lizarraldek mendian du ostatua eta asteen bi aldiz egiten du behar dituen gauzak erostera herrira joan etorria, mandoa duela lagun. Mendizale askok Ikusi izan du Balentin bere mandoarekin bidean, bera aurrean eta mandoa zamaz beteta atzean.

– Zergatik mandoa Balentin?

– Kargak eramateko ona delako. Mandoak sei bat kilometro egiten ditu ordubetean eta leku malkarretan laguntza handia eskaintzen du oso pausu segurua du-eta. Zaldia eta astoa baino hobea da.

Izan ere, mandoaren ama zaldi emea da, behorra alegia; aita, berriz, astoa. Bi animalia horien ezaugarriak onenak ditu mandoak Balentinen ustez.

Balentin mendian mandoa gaztea da oraindik. Gu hizketan ari garen bitartean, bide bazterreko belarrak ari da jaten. “Kapritxosoagoa da zaldia jateko kontuetan”, esan digu Balentinek bere mandoari begira.



– Zenbat urte ditu zure mandoak, Balentin?

– Hau gaztea da, sei urte besterik ez ditu. Zortzi urte dituenegonean egongo da bere sasoirik hoberenean, eta hamabi urterekin aldiz, sasoiak galtzen hasiko da, nahiz eta hamalau-hamabost urte bete arte ondo egin bere lana.

– Urte asko bizitzen al dira?

– Hogeitabat urte.

– Baina Balentin, zuk zer nahiago zenuke: mandoa ala todoterrenoa?

– A ze nolako galdera! Hara, kotxeak erosotasuna dakar, karga handiagoa hartzen du eta uda partean gehiago erabiltzen dugu. Baina orain, neguan alegia, mandoa da seguruenak; eta gainera honek ez du gasolinarik behar.

Bestalde esan beharra dago, “Gorri”, bere mandoa, adiskidetzat ere badaukala Balentinek.

– Zuk hitzik egingo al zenuke kotxearekin? Galdetu digu agurtzerakoan.

Honenbestean, aldapan gora abiatu dira biak bordara. Alde banatan karga zeraman “Gorri”; Balentinek, ostera, makila zeraman eskuan harturik. Burua jira eta agur egin digu eskuaz.

Xabier Etxaniz

**1. Non du ostatua Balentin Lizarralde?**

- A. Mendi magalean, auzo batean.
- B. **Mendian, borda batean.**
- C. Bailaran, leku malkar batean.
- D. Herrian, etxe batean.

**2. Mandoaren aita...**

- A. Zaldia da.
- B. Mandoa da.
- C. Behorra da.
- D. **Astoa da.**

**3. Jateko kontuetan...**

- A. Kapritxosoa da mandoa.
- B. **Kapritxosoagoa da zaldia.**
- C. Arazo gutxi du mandoak.
- D. Biak dira kapritxosoak.

**4. Idatzi 1etik 3ra dagokion zenbakia, ezkerreko eta eskuineko osagaiak lotzeko eta ideiak osatzeko:**

	Zenbakia
Mandoa 8 urterekin	<b>3</b>
Mandoa 12 urterekin	<b>1</b>
Mandoa 14 urterekin	<b>2</b>

(1) sasoia galtzen hasiko da.
(2) bere lana oraindik ongi egiteko gai da.
(3) dago sasoirik hoberenean.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
<b>0</b>	Erantzun okerra edo osatu gabea.
<b>1</b>	Hiru loturak zuzen.

**5. Zenbat urtez bizi daiteke mando bat?**

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Hauen antzeko erantzun zuzena: - "Hogei bat urtez" - "Hogei urtez gutxi gorabehera" - "20 urte inguru" - ...

**6. Zer nahiago du Balentinek?**

- A. Todoterrenoa.
- B. Astoa.
- C. Mandoa.
- D. Zaldia.

**7. Balentinen ustez neguan zamak garraiatzeko...**

- A. Mandoa seguruagoa da.
- B. Todoterrenoa hobea da.
- C. Mandoak ez du gasolarik behar.
- D. Biak dira onak.

**8. Balentinek, "Gorri"...**

- A. Zamak eramateko dauka.
- B. Berarekin eramaten du beti.
- C. Zaharra dela dio.
- D. Adiskidetzat ere badauka.

**9. Zure ustez zergatik egingo du hitz Balentinek mandoarekin?**

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Hauen antzeko erantzun zuzena: - "Biziduna delako" - "Laguna duelako" - ,...

**10. Adierazi X batez egia ala gezurra den.**

	EGIA	GEZURRA
Balentin urte osoan ibiltzen da mandoarekin zamak garraiatzen.	X	
"Gorri" zaharra da.		X
Zaldia mandoaren aita da.		X
Balentinek mandoa nahiago du todoterrenoa baino.	X	

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Lau erantzunak zuzen.

**11. Zer beste izenburu jarriko zenioke kontakizunari?**

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Kontakizunarekin zerikusirik <b>EZ</b> duena.
1	Kontakizunarekin zerikusia duena.



**HEMEN BUKATZEN DA LEHENENGO ZATIA**

**Ez pasa hurrengo orrialdera  
irakasleak esan arte.**

**H**<sub>LH3</sub>

2018/2019

# Zuzenketarako Koaderno

*Izen-deiturak*

*Ikastetxea*

*Taldea*

*Herria*

*Data*

**Irakurmena**

*LHko 3. maila*



## 2. zatia



Probaren bigarren zati hau egiteko 45 minutu dituzu.





**12. Zergatik egin du lo Silviak munduko bolarekin?**

- A. Zerbaiti helduta lo egitea gustuko duelako.
- B. **Mundua zaintzeko.**
- C. Eskolan esan diotelako.
- D. Ama aho zabalik utzi nahi duelako.

**13. Zer ikasi du Silviak eskolan Lur planetari buruz?**

- A. Besarkatu egin behar dugula.
- B. Sukarra duela.
- C. Zaindu nahi duela.
- D. **Berotzen ari dela.**

**14. Zer egin du Silviak?**

- A. **Lurra zaintzea erabaki du.**
- B. Ohean gelditzea erabaki du.
- C. Ama harritzea erabaki du.
- D. Bere panpina ordezkatzearabaki du.

**15. Ordenatu 1etik 4ra Silviari gertatu zaiona munduko bolarekin oheratu arte.**

<b>2</b>	Eskolan Lur planeta beroketaren ondorioz gaixo dagoela ikusi dute.
<b>1</b>	Silvia eskolara joan da.
<b>3</b>	Silviak Lurra zaintzeko munduko bolarekin lo egitea erabaki du.
<b>4</b>	Esnatzera joan zaionean amak harrিতuta galdetu dio.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
<b>0</b>	Erantzun okerra edo osatu gabea.
<b>1</b>	Lau erantzunak zuzen.

**16. Zure ustez, munduko bolarekin lo egitea nahikoa da Lurraren osasuna hobetzeko? Zergatik?**

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
<b>0</b>	Erantzun okerra edo osatu gabea.
<b>1</b>	Hauen antzeko erantzun zuzena: <ul style="list-style-type: none"> <li>- <i>“Ez, munduko bola Lurra irudikatzeko modu bat besterik ez delako”</i></li> <li>- <i>“Ez, asmo bat baino ez duelako adierazten munduko bolarekin lo egiteak”</i></li> <li>- ...</li> </ul>

**17. Zer adierazi nahi du amak “gure planeta berotzeko arrazoia umeen besarkadak balira, tira...” esaldiarekin?**

- A. Umeen besarkadek Lurra berotzen dutela.
- B. Besarkadek planeta berotzen dutela.
- C. Beroketa umeen besarkadengatik balitz, onargarria litzatekeela.
- D. Lurra sendatzeko besarkadak behar direla.

**18. Zein da binetaren izenburua?**

- A. Silviak Lurra zaindu nahi du.
- B. Nork zainduko du gure planeta?
- C. Gure planeta berotzeko arrazoia umeen besarkadak balira, tira...
- D. Silviak Lurrarekin egin du lo.

# BURUKETA



Larunbat goiza da. Etxepeko okindegira jaitsi da Maite neska koxkorra eta zera galdetu dio Joxepa dendariari:

- Egun on, Joxepa. Zenbat balio du baserriko ogiak?
- Baserrikoak? Hiru euro.
- Eta bi ogi eta erdik?
- Baserrikoak ala barra arruntak?
- Ez, ez, baserrikoak.
- Bada, bi eta erdik zazpi euro eta erdi.
- Eta nik hogeiko billetea emango banizu, zenbat itzuliko zenidake?
- Bada, 20 ken zazpi eta erdi... 12 euro eta erdi.
- Faborez, Joxepa, kontu guztiak paper batean txukun-txukun idatziko zenizkidake?
- Bai, bai, – erantzun du Joxepak harritu samar eta zer pentsa ez dakiela.  
<< Amaren mandaturen bat edo izango da...>>

Dena dela, Joxepak papera hartu, Maiteri kontu guztiak garbi eta txukun adierazi, papera eman eta galdetzen dio:

- Eta zenbat ogi nahi dituzu azkenean, jakin baliteke?
- Ez, ez, ez dut ogirik erosi nahi! Zera, andereñoak etxeko lana agindu digu aste-bukaera honetarako: buruketa bat asmatzeko agindu zigun atzo, eta nik, dagoeneko asmatu ez ezik soluzioa aurkitu ere egin dut. Horixe behar nuen, besterik ez! Eskerrik asko, Joxepa, oso matematikari ona zara, hurrengoan ere etorriko natzaizu. Agur!

Eta halaxe, Joxepa harri eta zur utzirik, atera da Maite dendatik; etxera igo eta eskolako koadernoan kopiatu du buruketa. Baina buruketa ez ezik soluzioa ere badu. Ez dago haserre, ez horixe!

## 19. Zertara joan da Maite okindegira?

- A. Buruketa bat asmatzera.
- B. Kanbioak eskatzera.
- C. Amari itxarotera.
- D. Ogia erostera.

**20. Zer uste du Joxepak denbora guztian?**

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	<i>Ogia erostera joan dela Maite amak aginduta.</i>

**21. Zein ogiren prezioa galdetu du Maitek?**

- A. **Baserrikoarena.**
- B. Baserrikoarena eta barrarena.
- C. Ez du preziorik galdetu.
- D. Barrarena.

**22. Zenbat euro balio dute baserriko bi ogi eta erdik?**

- A. Hiru euro.
- B. Bi euro eta erdi.
- C. **Zazpi euro eta erdi.**
- D. Hamabi euro eta erdi.

**23. Zer esan nahi du “erantzun du Joxepak harritu samar eta zer pentsa ez dakiela” esaldiak?**

- A. Haserre dagoela.
- B. Pentsatzen ari dela.
- C. EZ duela ezer ulertzen.
- D. **Zalantza duela Maitek zer nahi duen.**

**24. Idatzi 1etik 3ra dagokion zenbakia, ezkerreko eta eskuineko osagaiak lotzeko eta esaldiak osatzeko:**

	Zenbakia
Joxeparen okindegia	2
Joxepak	3
Maitek	1

(1) ez du ogirik erosi nahi.
(2) Maiteren etxe azpian dago.
(3) paperean idatzi dizkio kontu guztiak Maiteri.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Hiru loturak zuzen.

**25. Zergatik dago pozik Maite?**

- A. Baserriko ogia gustuko duelako.
- B. Joxepak lagundu duelako.
- C. Etxeko lan zaila zuelako.
- D. Buruketa eta erantzuna lortu dituelako.

**26. Nork kontatzen du istorioa?**

- A. Joxepak.
- B. Narratzaile batek.
- C. Maitek.
- D. Maiteren amak.

# Sagu & Pagu

URTEA IRAUPENA ZUZENDARIA HERRIALDEA  
2017 88'' Engin Bastürk Turkey



Adin egokia:



Unitate didaktikoan lantzen diren gaiak

Abentura, adiskidetasuna, animaliak, elkartasuna, klima aldaketa, natura zaindu/ekologia, taide-lana,

## Sinopsia

Baziren behin baso eta landa ederrak. Haletan izaki guztiak pozik bizi ziren elkarrekin. Baina lehortea heldu da. Eskualdeko izakiak egarriak eta goseak hilik egon dira luzaro. Zerbait egitea erabaki dute, konponbideren bat aurkitu, egoera negargarri honi amaiera emateko. Dortoka batek gidatuta, altxoraren bila doaz, hark orain dauden egoera larritik aterako dituen itxaropenarekin. Bidaiaren etapa bakoltza abentura berri bat izango da taide bitxi honentzat.

## Zergatik ikusi film hau?

Filmak adiskidetasuna, errukia eta elkartasuna goratzen ditu, eta garrantzi handiko gaiak azaldu, ur eskasarena, adibidez; edo arriskuan dauden animaliena, eta etorkizunean gizakiok jasan dezakegun lehortearena. Taide-lana eta ekologia lantzeko film aproposa.



GIDOIA

Murat Kirisci



ARGAZKI-ZUZENDARIA



ZUZENDARIA

Engin Bastürk



MUNTAIA



MUSIKA

Burak Çambel



AKTOREAK

Onur Kiris, Fatih Özkul, Sinan Divrik

### 27. Zer da Sagu & Pagu?

- A. Liburu bat.
- B. Film bat.
- C. Antzerki bat.
- D. Ipuin bat.

### 28. Zer da "sinopsi" bat?

- A. Laburpen bat.
- B. Izenburu bat.
- C. Kontakizun bat.
- D. A, B eta C zuzenak dira.

**29. Zergatik egon dira egarriak eta goseak animaliak?**

- A. Kendu egiten dietelako janaria eta ura.
- B. **Lehortea etorri delako.**
- C. Mundua zaindu behar delako.
- D. Alferkeriatan ibili direlako.

**30. Nora gidatzen ditu dortokak eskualdeko izakiak?**

- A. Ur eta janari bila.
- B. Abenturaren bila.
- C. **Altxorraren bila.**
- D. Konponbide baten bila.

**31. Adierazi filmaren unitate didaktikoan lantzen diren lau gai.**

- (1) ..... (2) .....
- (3) ..... (4) .....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Lau erantzun zuzen. Erantzun zuzenak: <i>Abentura, adiskidetasuna, animaliak, elkartasuna, klima aldaketa, natura zaindu/ekologia, talde-lana.</i>

**32. Filma ikustera animatzeko ematen diren argudioak...**

- A. Gezurra dira.
- B. **Gizakion kezkak dira.**
- C. EZ da argudiorik ematen.
- D. Asmatu egin dituzte.



**33. Adierazi X batez egia ala gezurra den.**

	EGIA	GEZURRA
Filmak adiskidetasuna, errukia eta elkartasuna goratzen ditu.	X	
Filma uholdeez aritzen da.		X
Zuzendaria Murat Kirişçi da.		X
Filmak talde-lana eta ekologia lantzen ditu.	X	

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Lau erantzunak zuzen.

**34. Zein urtetakoa da eta nork zuzendu du *Sagu & Pagu* filma?**

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	2017 eta Engin Bastürk.

Lehen Hezkuntzako 3. maila Irakurmena				
	Galdera	Mota	Erantzun zuzena	Gehienezko puntuazioa
MANDOAREKIN MENDIAN GORA	1	Itxia	B	1
	2	Itxia	D	1
	3	Itxia	B	1
	4	Irekia	-----	1
	5	Irekia	-----	1
	6	Itxia	C	1
	7	itxia	A	1
	8	Itxia	D	1
	9	Irekia	-----	1
	10	Irekia	-----	1
	11	Irekia	-----	1
NORK ZAINDUKO DU MUNDUA	12	Itxia	B	1
	13	Itxia	D	1
	14	Itxia	A	1
	15	Irekia	-----	1
	16	Irekia	-----	1
	17	Itxia	C	1
	18	Itxia	B	1
BURUKETA	19	Itxia	A	1
	20	Irekia	-----	1
	21	Itxia	A	1
	22	Itxia	C	1
	23	Itxia	D	1
	24	Irekia	-----	1
	25	Itxia	D	1
	26	Itxia	B	1
SAGU & PAGU	27	Itxia	B	1
	28	Itxia	A	1
	29	Itxia	B	1
	30	Itxia	C	1
	31	Irekia	-----	1
	32	Itxia	B	1
	33	Irekia	-----	1
	34	Irekia	-----	1
			<b>Oсотara</b>	<b>34</b>